

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 238. alea - 2019ko martxoa



**“Bizitzak erdigunera”,
aldarrikapen ozena M8an**



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte gustian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com


HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!



943 191 383

berriketan@zuhatza.com

URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA




Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

AURKIBIDEA

4

GUTUNAK

“Debako Udalarren pertsonal politika”,
“Arte Eskola Bizirik”,
Kolorez Blai udalekuak...

9

KRONIKA

“Bizitzak erdigunera”.
Martxoaren 8a
Antolatzeo Asanbladak egunaren kronika egin du

10

ELKARRIZKETA

Txernobyngo haurrak etxean hartzeko familia bila dabilta. Debako harrera familia batekin egon gara

14

ALBISTEAK

Arriolako eta Egiako bizilagunen sinadura bilketa;
“Bator Korrika!!!”

16

INAUTERIAK

Herritarrek bidalitako argazkiekin osatu dugu aurtengo inauteriei dagokien bilduma

Zuhatzak apirilaren 5ean egingo du urteko batzar orokorra

Zuhatzakide agurgarria:

Lerro hauen bitartez, urteko Bazkideen Batzar Orokorrerako deialdia egiten dizugu. Bertan, 2018. urteak eman duenaren berri eman eta etorkizunerako ditugun asmoak zurekin konpartitu eta adostu nahiko genituzke.

Batzarra apirilaren 5ean (ostirala) egingo dugu, Zuhatza elkartearen bulegoan. Lehenengo deialdia arratsaldeko 18:30ean izango da. Bazkideen erdia baino gutxiago bertaraten bada, egun

berean ordu erdi geroago egingo da hitzordua, 19:00etan, bertaraten den bazkide kopurua edozein dela ere.

Batzarrean, besteak beste, 2018ko gestio-balantzea azaldu eta 2019rako aurrekontua eta egitasmoak izango ditugu hizpide, baita elkarte Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena ere.

Zuhatzak behar-beharrezkoa ikusten du elkarte bazkideon inplikazioa eta babesa. Hitzordura hurbiltzerik ez baduzu, zure proposamen, kritika edo irado-

kizunen berri emateko elkartearen bulegotik pasa edo gurekin harremanetan jarri (deitu 943 19 13 83 / 632 04 33 22 telefono zenbakietara edo idatzi koordinatzailea@zuhatza.com helbidera).

Hurbil zaitez Zuhatzara, ateak zabal-zabalik dituzu! Etorri elkartearen duguna ezagutzera. Besterik gabe, apirilaren 5eko batzarrean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaitugu.

Zuhatza Euskara Elkartea



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aizundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Arrate San Martin

Publizitatea: Joseba Escudero, Koldo Aperribai eta Terese Larrañaga

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Debako Udalaren pertsonal politika

Azken hamarkadan Debako Udalean egin den pertsonal politikaren ondorioz udal plantillaren egoera ez da batere desiragarria. Oposaketa deialdiak egiteko Estatuko Aurrekontu Orokorrek ezarritako mugengatik, batzuetan; eta udal ordezkarien erabakiengatik, beste batzuetan. Debako Udalaren behin-behinekotasuna zifra kezkarrietara heldu da, plantillaren %65era iristen baita gaur egun (legeak ez du %8tik gorako behin-behinekotasunik onartzen). Gainera, plantillako langileen arteko desberdintasuna, ez soilik genero aldetikoa, kronifikatu egin da.

Hutsik geratzen diren lanpostuak ez dira funtzionarioekin betetzen; urteak daramatzagu horrela. Legegintzaldi honen hasieran, lan eskaintza publiko ahalik eta zabalena egiteko konpromisoa hartu zuen, publikoki, gobernu taldeak. Hutsik zeuden plazak bete eta behin-behinekotasuna nabarmenki jaitea zen helburua (ikus 9. *Debaberri* aldizkaria, 25. orrialdea).

Ezustekoa izan da azken Osoko Bilkuran korporazioak Udaleko Lanpostuen Zerrenda langileen ordezkariekin negoziatu gabe onartu izana, nahiz eta legeak hala galdatzen duen.

Hori gutxi balitz, aipatu bilkuran onartutako lan eskaintza publikoak ere ez du legea betetzen, ez baititu hutsik dauden plaza guztiak jasotzen. Horrela, herritarren oinarriko eskubidea mugatzen ari dira, baldintza-berdintasunean enplegu publiko bat lortzeko eskubidea, alegia.

Negoiaziorik eta parte-hartzerik gabeko jokamolde honek, legez kontrako izateaz gain, Administrazioaren zuhurtziagabekeriaren gehiegizko erabilera eragiten du; eta ondorioz, bidegabekeria ekarri du. Eta hori ez da Udal Gobernura iritsitakoan agindu zutena.

Debako Udaleko CCOOeko atal sindikala

Arte Eskola Bizirik

Duela pare bat hilabete sortu genuen Arte Eskola Bizirik taldea, egungo udal gobernuak arte eskola ixtea erabaki ondoren.

Lehenik eta behin balorea eman nahi diogu Debako Arte Eskola izan denari, euskal kultura eta lurraldean egin duen ekarpenari. Jorge Oteizak 70. hamarkadan bultzatutako eskola esperimentaletik hasi eta eskulangintzako ofizioen transmisioaz arduratu den bigarren eskolaraino, non harri lanketa, grabatu kalkografikoa, zurgintza, brontze galdaketa artistikoa eta zeramika lantzen dituzten hainbat profesional formatu diren.

Bestalde, uste dugu ezin dela bertan behera geratu orain arte izan den guztia, eta saiakera bat edo hamaika

saiakera egingo ditugu, beharrezkoak badira, gaurko egoerara eta interesetara egokituko den arte eskola berri bat birpentsatu eta eraikitzeko.

Izan ere, artearen izaera eraldatzailan sinesten dugu. Arteak munduarekin erlazionatzeko beste forma bat eskaintzen digu, pentsatzeko beste modu bat, jakintza ezberdin bat. Arteak balio du gugandik eta gure kezkez hitz egiteko, pentsamendu kritikoa eraikitzeko, jakintza sentsiblea lantzeko.

Bide honetan, "Arte Eskola atzo eta bihar" izenburuko jardunaldiak antolatu ditugu martxoaren 23rako Agirre jauregian, interesa duzuen guztiontzat irekiak.

Arte Eskola Bizirik taldea



Juan Luis Baroja Colletek testuinguru honetarako egin duen grabatua. Herriko zenbait dendatan salgai dago. Irabaziak taldearen gastuei aurre egiteko erabiliko dira.

Martxoaren 8an planto egin genuen Zuhatzan eta *Berriketan*-en

Zuhatza eta *Berriketan*-eko langileek bat egin genuen Euskal Herriko mugimendu feministak martxoaren 8rako deitutako grebarekin. Lantalde txikia da gurea; soldatapeko zereginetan aritzen

garen bi langileak emakumeak gara egun, baita inguruan era boluntarioan edota isilpean lan egiten duten elkarteko beste kide asko ere. Egundik lanuztea egin genuen, elkartean eta erredakzioan.

Horrek eragina izan du aldizkari honen sortze prozesuan. Hutsune txiki baina esanguratsu batekin irudikatu nahi izan dugu gure lanuztea.

Zuhatza Berriketan-eko langile emakumezkoak

Elkarlanetik, bestelako Deba eraiki

Duela 8 urte gaur EH Bildu dena izateko lehendabiziko urratsak egin ziren. Hala eta guztiz ere, gure herrian horrek bestelako forma bat hartu zuen. Egungo erronkek berregokitu eta moldatzeko beharra eskatzen zigutenez, 2017ko ekainetik EH Bildu subjektu propio gisa eratzen hasi ginen. Deban ere bide honetan pausok emateko asmoz, herritar guztion neurrira egongo den tresna ireki, anitz, eraginkor eta parte-hartzaile hau eraikitzen gabilta.

Honakoa ez da erronka txikia, kontuan izanik hemendik bi hilabetera udal hauteskundeak aurrez aurre izango ditugula. Jada herri programa lantzen ari gara, eta horretarako herritarren iritzia jasotzeari ekin diogu, prestatu dugun galdetegi baten bitar-

tez. Horrez gain, San Roke kaleko 3. zenbakian bulegoa irekiko dugu, eta bertara gerturatzeraz gonbidatzen dugu edonolako kezka edota ekarpena egin nahi duen herritar oro.

Debako errealitatea zein den ikusirik, eta hau iraultzeko asmoz, EH Bildu eraikitzen ari garenon partetik, herri honek eta bere herritarrek dituzten beharrak identifikatu eta horiei zentzuzko irtenbide adostuak aurkitzea da gure xedea. Debarekin eta Euskal Herriarekin dugun konpromisoa ez da soilik hauteskundeetara mugatzen; horrexegatik, bestelako Deba nahi dugunon arteko elkarlana ezinbestekoa dela jakinik, gure proiektuarekin bat egiteko gonbitea luzatzen dizuegu.

Debako EH Bildu

Kolorez Blai udalekuak 2019

Kaixo!

Idatzi honen bitartez, jakinarazi nahi dizuegu aurtengo Kolorez Blai euskal udalekuetako izen-ematea aurreko urteetan baino lehenago izango dela; apirilean, hain zuzen ere. Ikastetxean banatuko diren eskuorrietan zehaztuko dira ordutegiak, baita kalean aurkituko dituzuen karteletan ere -matrikulazioa internet bidez egiteko aukera ere aztertzen gabilta-.

Kontuan hartzekoak:

-Izen-ematea behin betikoa izan dadin, matrikulaziorako datuen fitxa zuzen beteta aurkeztu beharko da Zuhatza elkartearen bulegoan, ordainagiriarekin batera. Eskatzen diren datu guztiak bete, mesedez. Ikastetxean ez ezik, Turismo Bulegoan, udaletzeko harreran eta Zuhatza elkartearen ere izango dituzue eskuragai inprimakiak.

-Haur guztiek izango dute epe bera izena emateko. Hau da, ez da

haurrik onartuko epez kanpo. Garaiz egin behar da izen-ematea, eta hari dagokion ordainketa.

-Urtero legez, udalekuak abiatu baino lehen, ekainean, gurasoei zuzendutako bilera bat egingo da (begiraleak ezagutzeko, egitasmoaren inguruko informazioa jasotzeko, zalantzak argitzeko...). Bilera eguna aurrerago zehaztuko da.

Besterik gabe, jakin ezazue ilusioz beterik gaudela aurtengo udalekuak antolatzeke. Lanean hasiak gara jada, zutail koloretsu bat eskaintzekotan.

Aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkizuegu gugan konfiantza jartzen duzuen guztioi, herritarroi nahiz Debako Udalarari. Mila esker, era berean, Zuhatza Euskara Elkarteari, urteotan alboan izateagatik. Zuek gabe hau guztia ez litzateke posible izango.

Mila esker eta laster arte!

Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldea



UXUE PASCUAL

Ni naiz, zu zarelako

Ni ez nintzen zu gorrotatzen hazi, ez ninduten horretan hezi.

Ni ez nintzen indibidualtasunean hazi, elkarren arteko laguntzan baizik.

Ni ez nintzen norgehiagoka horretan hazi, ez, ez. Oker zaudete.

Ni, nire askatasunean bizitzeko hezi ninduten.

Askatasun sinbolikoan, benetako ariman besterik ez baitago.

Ni neu izateko hezi ninduten, zu, zu zeu zaren moduan.

Ni, ni eta ni.

Ni diogun bakoitzean, zer esaten dugun jakin nahiko nuke.

Ni: neure izena;

Ni: neure gorputza;

Ni: neure izaera;

Ni: neure familia;

Ni: neure herria; bai, neure herria ere nire barnean da. Eta zeurea zure barnean. Nor izan daiteke hain lotsagabea nire barnean zer dagoen eta zer ez dagoen epaitzeko?

Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

Ni naiz, zu zarelako, gu garela, mundua delako, unibertsoa delako,...

Izena lapurtu liezadakete, gorputza lapurtu liezadakete, izaera lapurtu liezadakete, baita familia, herri eta lurra ere. Baina inoiz ez neure *Ni*a, NI NAIZENA.

Eskerrik asko zu zeu izateagatik, ni, ni neu izaten laguntzen baitit.

Marcos Rodriguez Pantoja, "otso artean"

Hamabi urtez bizi izan zen basoan, animalien artean, eta Deban izan dugu otsailean bere esperientziaren berri ematen



Marcos "otso txiki" horietako bat da. Hamabi urtez (1953-1965) bizi izan zen otso, ahuntz, oreintxo, arrano, untxi, eper eta Sierra Morenako beste animalia batzuen artean. Horien guztien hotsak imitatzen ikasi zuen. Marcosi buruzko doktore tesia egin zuen Gabriel Janerrek, eta zera adierazi zuen: "Beretzat, animaliekin harremana izatea ez zen izan zailagoa gizakiekin harremana izatea baino". Marcos Deban izan zen joan den otsailaren 17an, Debadezine Elkartearen zineforumean.

Gabriel Janer Manila antropologoak sei hilabetez elkarrizketatu zuen Marcos, basotik irten eta hamar urtera, eta gure gizarte honetara agertu zenean lagundu ziotenekin ere hitz egin zuen. Haiek esan ziotenez, mutilak ez omen zeukan gizarte bizitzaren berririk batere: hizketan ezinean, ibilera baldarra, xalotasun handia..., baita buru argia eta naturaren ezagutza bikaina ere.

Ikaragarri behartsua zen sendi batean jaio zen. Berak hiru urte zituenerako hil zitzaion ama. Berrero ezkondu zen aita eta ugazamak gaizki tratatzen zuen Marcos; zazpi urte betetzearan lur-jabe bati saldu zioten semea. Ahuntzain zahar batekin bizitzera bidali zuten eta hura, handik gutxira, hil edo desagertu zenean, bakarrik geratu zen Marcos. Bere etxeko tratatu txarren beldur, mendian geratzea erabaki zuen. Marcosek kontatzen duenez, halako batean, otsokume batzuekin jolasean hasi zen: "Amak aurkitu ninduen eta banandu egin ninduen hankarekin. Ez nekien zer pasatu behar zen; baina, orduan, otso amak haragi zati bat bota zidan, nik hartu eta jan nezan. Une hartatik aurrera, otso emea miazkatzen hasi zitzaidan. Ni atzetik joaten nintzaien, haietako bat banintz bezala". "Nik hil egiten nuen jateko. Oreinen gainean jartzen nintzen eta zintzurra puskatzen nien. Otsoek bazekiten nik haiekin banatuko nuela janaria; eta, jaten ematen banien, laguna nintzela antzematen zuten. Otsoak nirekin ibiltzen ziren eta errespetatu egiten ninduten. Beldurra ematen nien sua egiten nuelako, baina ondo konpontzen ginen. Arriskuan nengoenean dei egiten nien eta laguntzera etortzen zitzaizkidan".

**"Basotik atera zuten,
baina berak ez du
basotik ihes egin.
Animaliak gaizki ez
tratatzeara da adiskide
izateko baldintzetako bat"**

Poliki-poliki, giza hizkeren orde, animalienak ikasi eta erabiltzen hasi zen: otsoen ainuria, arranoen garrasia, oreinen eta ahuntzen marrua, sugearen txistua, mozoloaren garrasia, basurdearen kurrinka... Hitz asko ahaztu egin zitzaizkion; baina, inguruko guztiaren berri zekien, eta berak ipini zizkien izenak inguruan zeuzkan guztiei -onomatopeiak, askotan-.

Bere historia interpretatu egin behar da

Gabriel Janerren ustez, lehen urteetako goseak eta miseriak gotortu zuten bereziki bere nortasuna eta, bere buru-argitasunarekin batera, horien eraginari zor dio bere bizirauteko ahalmena.

Hala ere, Marcosek bizi izan zuena oso garrantzitsua izan arren, beste gauza bat zen berak uste zuena. Gauzak bizi egin ohi ditugu eta interpretatu. Inoiz ez zen otso izan, baina haiekin bizi izan zen hamabi urtez. Ehizatzen zuten haragia eta jatekoa elkarrekin partekatzeak erraztu egiten zien elkarrekiko harremana. Bere iritzi, Marcos ez zen otso artean hazi, hauekin harremanean baik: "Elkarri laguntzen zioten". Erabateko bakardadearen aurrean, "Marcosek sendi bat eraiki behar izan zuen eta sena izan zen mendian irauarazi ziona".

mendian irauarazi ziona".

Marcosek dio otso haiek senide zituela, otsoek jaso zutela.

Zer iruditzen zaizu zuri, irakurle? Elkar babestea ez al da sendi txiki edo handi bateko kide izatea? edo **kuadrilla** batekoa?

Zaila gertatu zaio Marcosi gure gizarte honetan birkokatzea. Askotan engainatu zuten. Kosta zaio gizakiok geure bizitzak eraikitzen erabiltzen dugun anbiguotasuna ulertzea. Engainuaren aurka jaiki zen eta gure gizartetik at sentitu da askotan.

Trauma hori bizi izan duten pertsonak nekez egokitzen dira gizartera eta Marcos auzi berezia da: bera da 60 haur haietatik gure gizarterean hobekien bizirautea lortu duena. Gaur egun, Galiziako hegoaldeko herri txiki batean bizi da.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro

200.000 urte inguruko aztarnak aurkitu dituzte Praileaitz I kobazuloan



“Behe Paleolitoko biztanleria batek okupatu zuen Praileaitz, ehizarako tresnak landu zituen, espezieak harrapatu zituen, eta koban bertan kontsumitu zituen”. Baieztapen hori egin du Xabier Peñalver Aranzadi zientzia elkarteko arkeologoak, Praileaitz I kobazuloan egindako azken aurkikuntzen berri eman duenean. Duela 200.000 urte inguru koban gizakiak egon zirela erakusten duten aztarnak topatu dituzte, hala nola haiek erabilitako harrizko tresnak eta jandako animalien fosilak, tartean elefanteen familiako ugaztun handi baten hezurak.

Xabier Peñalver indusketaren zuzendariak agerraldia egin zuen otsailaren 25ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta Debako Pedro Bengoetxea alkatea alboan zituela. Azken hilabeteetako lanaren emaitzak aurkeztu zituen arkeologoak, baita Praileaitz I haitzuloan egin dituzten aurkikuntzen balioa nabarmendu ere: “Lehen aldiz, historiaurrearen etaparik antzinakoenera garamatzate aztarna hauek”. Izan ere, 2017-2018ko indusketetan, dozena erdi metro karratuko espazio batean, harrizko lanabesak eta jandako animalien aztarna ugari aurkitu dituzte, Behe Paleolitokoak, duela 200.000 urte ingurukoak.

Harrizko tresnei dagokienez, zizelkatutako harri bat ez ezik, bi laua ere aurkitu dituzte, harriak bertan lantzen zituzten erakusgarri.

Faunari dagokionean, berriz, 578 aztarna ari dira ikertzen, eta haien artean *Elephas antiquus* edo mamut baten kalkaneo-zati bat nabarmendu du Peñalverrek; kobazuloa “gutziz eta modu eraginkorrean” babesteko erregutu zuen azken agerraldian ere.



bat ere aipatu ditu –duela 150.000-200.000 urte artekoak dira–.

Ugaztun handiak kontsumitzen zitzutela jakin arren, Peñalverren esanetan, oso zaila da pentsatzea orduko tresnekin harrapatzen zitzutela lauzpabost metroko garaiera zuten animalia haiek. Europako beste aztarnategi batzuetako kasuak ikusita, litekeena da ugaztun haiek zaharrak izatea eta hilda zeudenean jatea, edo, bestela, txikiak zirenean harrapatzea.

Arkeologoak iragarri du laster izango dutela orduko harrapaketei, begetazioari eta klimari buruzko informazio gehiago. Esate baterako, orpo hezurra elefante batena bada, kontuan hartzea da haiek klima beroan bizi zirela. Aitzitik, klima hotzetan bizi ziren mamutak. Inguruan orein bat aurkitzea ere hotzaren adierazle izango litzateke, eta tximua aurkitzea beroaren seinale. Polenaren azterketak ere lagunduko du zalantzak argitzen.

Praileaitzen orain arte aurkitutako aztarnak (zintzilikarioa, margoak...) Goi Paleolitokoak ziren. Arkeologoek, ordea, aspalditik sumatzen zuten kobazuloak badituela oraindik aurkitu gabeko altxorrek: horregatik eskatu dute beste behin ere harrobiko lanak gelditzea, arriskuan jartzen baitute ondare hori. Berretsi egin du eskaera hori Peñalverrek; kobazuloa “gutziz eta modu eraginkorrean” babesteko erregutu zuen azken agerraldian ere.



MAITE RODRIGUEZ

Tximeleten, kakarraldoen eta erleen gainbehera

Intsektuak arriskuan daude, eta intsektuak egungo ekosistema askoren oinarri eta zutabe dira. Intsektuek habitat guztien funtzionamenduan eginkizun itzela daukate, polinizazioan laguntzen dute eta baita elikagaien zikloan ere. *Biological Conservation*-en arabera, datorren hamarkadetan intsektu kopuruak %40raino jaitsiko dira gizakion eraginez. Tximeletak, kakarraldoak eta erleak dira espezie kalte-tuenak, baina beste zomorro anonimo asko ere arriskuan daude. Arrazoi nagusiak betikoak dira: gizakiek bultzatutako habitat galera eta kutsadura (herbizidak eta pestizidak batez ere), patogenoak eta klima aldaketa. Intsektuen galera katastrofikoak saihestea gure esku dago: gune basatiak babestuz, pestizida erabilera nabarmen murriztuz eta lore askodun guneak mantenduz, zelai ertzetan, adibidez.

Gaur egun, intsektuak nazkagarriak eta batzuetan kaltegarriak ere badirela pentsatzen dugu. Erleekin behintzat orain dela oso gutxira arte erlazio berezia eduki dugu, animalia sakratuak izan dira hemen. Erleei zuka egiten zaie eta ez omen dira diru truke eman behar. Gainera, etxeko jauna edota andrea hiltzean erleei berri eman behar zaie. Azken hori bi arrazoiengatik egiten omen zen, erlea bera ez hiltzeko eta erleak argizari gehiago egiteko hilobirako kandeletarako. Heriotzaren berri emateaz gain, ordutik aurrera etxeaz arduratuko zenaren berri ere eman behar zitzaion. Antza, aspaldiko sinesmena da erleak defuntuen arimak direla, eta arima berrien etorreraren berri eman behar zaiela. Eta azkenik, erleak hil egiten dira, pertsonak bezala, eta animaliak akabatu. Eta esan bezala, gure esku dago erleak ez hiltzea.



Debarak munduan

OIER SALEGUI

“Oier Salegui Ansorregui naiz, 38 urte ditut eta gustuko ditut musika eta futbola”. Hitz horiekin aurkeztu digu bere burua elkarrizketa honetako protagonistak. 2012tik bizi da Australian. Melbournetik erantzun ditu *Berriketan*-ek egindako galderak.

Non zaude gaur egun? Zergatik?

2012ko irailean Melbournera etorri nintzen bizitzera nire emaztearekin, bera hemengoia baita.

Zerk eraman zintuen horra?

Melbourneko emaztea edukitzeak Melbourne eta Australia ezagutu eta bertan bizitzeko ateak ireki zizkidan, esperientzia berriak bizitzeko aukera.

Zertan zabilta orain?

Makina-erreminta industrian egiten dut lan eta bi urteko alaba ere badugu, Alexia. Futbolearen ere hasi naiz, lagun berriak egiteko modu aproposa da. Rock musika banda batean ere aritu nintzen tronboia jotzen, baina Alexia jaio zenetik ez dut denbora libre asko izaten eta pixka bat alboratuta daukat musikaren kontua. Dena dela, gustatuko litzaidake berriro ere hastea.

Espero zenuen bezalakoa da? Zerk harritu zintuen?

Ez. Melbourneko eguraldia Euskal Herrikoaren oso antzekoa da, batez ere negua. Udan bero handiagoa egiten du hemen. Atzerritar kopuruak asko harritu ninduen, batez ere indiarrek, txinatarrak eta japoniarrak ugari dira hemen.



Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Egunero egiten diot euskaraz nire alabari. Euskaldun batzuk ere ezagutzen ditut Melbournen eta noizean behin saiatzen gara elkartzen. Duela 2 urte “Korrika” ere egin genuen hirian zehar. Aurten ere zerbait antolatu beharko dugu...

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Australian, jatorrizko jendeak, aborigenek, hizkuntza asko dituzte. Telebistaz entzuteko aukera besterik ez dut izan, nahiz eta ezer ez ulertu.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Familia. Ez dut uste Debari ezer falta zaionik.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Ba orain momentuan ez dakit erantzuna. Asko gustatuko litzaidake Debara bizitzera bueltatzea, baina kontuan hartu beharreko gauza asko daude.



Laburrean

Paisaia bat:
Debako herria, Santa Katalina ermitatik

Usain bat:
amaren sukaldekoa

Zapore edo jaki bat:
legatza

Gustuko dut...
itsasoa

Ez dut gustuko...
hezetasuna

Amets bat:
nire alaba euskaraz hitz egiten entzutea



BIZITZAK ERDIGUNERA

Aurreko urtean hasi zen martxoaren 8a egiteko beste modu zoro hau, grebarena. Berria eta iraultzailea, bere baitan zuelako greba egiteko beste modu bat, ordura arte ezagutu gabea: ikastetxeetan, kontsumoan eta enpleguan greba egiteaz gain, ordaindu eta baloratu gabeko lanetara ere hedatu zen greba, modu horretara eztabaidagai jarriz askotan ikusi ere egiten ez diren lanak daudela. Zaintzak, adibidez. Historikoki emakumezkoei esleitu zaizkigun lanak, eta hargatik, gutxietsiak izan direnak, oraindik ere gehienetan gure gain -eta bereziki emakume migranteengan- erortzen den zama: eskerrik gabekoa, baina oinarritzak; baloratzen ez dena, baina beharrezkoa; ia emakumeon* patu bezala kontsideratzen dena batzuetan, baina emakume* ez denak ere egin dezakeena... eta garrantzitsuena: bizitza bizigarria izateko guztiz ezinbestekoa dena, eta beraz, denon ardura izan beharko lukeena.

Deban ere egin genuen greba, goizetik esnatu genituen kaleak megafonia eta musikarekin. Talde txikia zena hazi egin zen plazan elkartzeko hitzordua iritsi zenean, eguneko egitaraua konpartitu eta martxan hasteko momentua. Eguraldiaren gorabeherak eman zizkiguten buruhauste batzuk, baina ondo kudeatu genituen eta momentuan berregokitu genituen tailerren espazioak. Udaltzaingoa eta brigadako langileak zoratu genituen arren, momenturo laguntzeko prest azaldu ziren; eta zer esan plazan bildutako jendeaz: "zer egin behar da?"; mahai eta aulki dantza, "kartel hau jartzeko zelaio utzi, mesedez", "jaima ekarri dugu"... Elkarlanaren elkarlanaz, bazirudien gauzak bakarrik muntatzen zirela egun hartan! Hori da hori gogoa eta konpromisoa! Elkarrekin egitearen magia! Eskerrik asko, benetan!

Deba, Itziar eta Saharako zenbait emakumek haien jakintze-

tatik edateko aukera eman ziguten goiz osoan zehar, eta ezagutza elkartruke horretara batu ziren pila bat emakume*, plaza hartuz, sareak ehunduz eta bizitza erdigunera eramanez. Henna, yoga, euskal dantza eta balleta, hartzigarri begetalak, kantuak, ilustrazioa, estanpazioa, pala, gantxiloa eta puntua... han ez zen ezer falta.

Orduak bizkor pasa zitzaizkigun, goxatzen; eguerdia gainean, institutuko neskek jaitsi ziren, trikitixak eta lemek girotuta, soka, baloi, kartel eta pankarta eskuetan, eta plazan egin genien harrera beroa. Bazkari autogestioan berriketa eta algarra; eta bazkalostean goxatua: ipuinaren besarkada. Arratsaldea ate joka, egitarauak aurrera! Kontzertu akustikoa, zineforuma, datorren urteko martxoaren 8a antolatzeko asanblada inprobisatuak (oraindik aurtengoa bukatu ez, eta hurrengorako gogotsu!), eta aspaldian Deban ikusi ez den manifestazio jendetsua! Eta eguna borobil bukatzeko, Klean Kantuzekin batera egindako kanta saioa.

Zorion mezuak, aurpegi alaiak, asebetetze sentsazioa...

Elkartzen gaituen aldarria: ez dugula onartuko genero, sexu edo jatorriatik inor diskriminatzea, zapaltzea, erailtzea, gutxiestea. Eta horretarako, bakoitzak bere ardurak hartu behar dituela:

batzuek pribilegioei uko egin behar dietela, eta instituzioek neurri zehatzak eta errealak hartu behar dituztela. Horretarako egin dugula greba.

Saretzen gaituen mugimendua: feminista.

Elkartzen gaituen helburu bat: bizitzak erdigunean jartzeko nahia, guztion bizitzak -emakumeonak eta transenak ere- bizigarri egiteko nahia. Esateko hain zaila zen lema hori... heteropatriarkatu kapitalistari planto!

Martxoaren 8a antolatzeko asanblada



Ivan mutiko ukrainarra (kirol-jertse grisarekin), bere Debako familiarekin

“Nahi duen oro animatzen dugu harrera familia izatera. Etxean oso aberasgarria izan da guztiontzat”

Txernobylgo haur bat hartu du etxean hainbat urtez Mila Osak eta esperientzia errepikatzeko gogoz daude familian, bizipen aberasgarria delakoan. Uztailean datorkie berriz ere Ivan mutikoa etxera, uda pasatzera. Chernobil Elkarteak “Osasuntsu hazteko gure laguntza behar dute” lelopean abiatu duen kanpaina pixka bat gehiago ezagutu nahian, Debako harrera familia honekin **Berriketan** aritzeko aukera izan dugu.

Noiz eta nola animatu zineten haur bat etxean hartzera?

Nik betidanik izan dut hori egiteko gogo. Familiakoekin hitz egin eta denon artean momentu ona zela ikusi ondoren, orain dela lau urte jarri ginen harremantetan Chernobil Elkartearekin.

Guk eskatutakoa eta gure ezaugarriak aztertu ondoren, elkartekoek esan ziguten Ivan etorriko zela uda pasatzera gure etxera. Hori urtarrilean izan zen eta ekaina bukaerara arte Ivan ezagutzeko irrikaz geunden guztiok.

Zelan gogoratzen duzue haurra etorri zen lehenengo aldia? Nola moldatu zineten lehen egunetan?

Aireportutik etxerako bidaia oso tristea izan zen; Ivan negarrez, eta hura horrela ikustean gure umeak ere negarrez... Ivan beldurtuta zetorren, zazpi urte besterik ez zituen eta bat-batean familia ezezagun batekin uzten zaituzte, ez dakizu hizkuntza, kotxean lotuta joatea ez duzu ulertzen... Dena den, Debara

heldu eta kalera irten ginenean berehala hasi zen Yuri semearekin jolasten eta oso alai ikusten genuen.

Hasierako egunetan etxeok faltan botatzen zituen: bere familiakoan argazkiei begira egoten zen une batzuetan, baina berehala pasa zitzaion eta bere familiaz ahaztu zela zirudien. Egia esan, lehenengo asteak gogorrak egiten dira, baina merezi du.

“Lehenengo asteak gogorrak egiten dira, baina merezi du. Anaia, neba edo seme bat irabazi dugu eta, harekin batera, bere familia”

Elkar ulertzeko zailtasun handiak izan zenituzten?

Nahiz eta guk euskaraz hitz egin, kei-

nuen bidez eta Chernobil Elkarteak emandako liburuxka baten bidez komunikatzen ginen hasieran. Baina gu konturatzera, berak dezente ikasi zuen euskaraz.

Baguenen Deban beste familia bat, ezin ulerturen bat genuenean laguntzen gintuena. Beraiek orduan hiru urte zermatzaten Oksana izeneko neskatxo bat ekartzen. Euren eta monitoreen laguntza ezinbestekoa izan zen sortzen ziren arazotxoak konpontzeko.

Zenbat aldiz hartu izan duzue haurra etxean?

Ivan hiru urtetan egon da gure etxean, baina lau aldiz etorri da. Aurtengo udaran bosgarren aldiz etorriko da.

Hemen egoten diren bitartean sarritan komunikatzen al dira Ukrainako familiarekin?

Ivanek udan lau dei egiten ditu, bi hilabetetan; bat Debara heldzean, bestea Debatik Ukrainara joan aurretik, eta

beste biak tartean. Haurren gizarteratze prozesuan, ez zaie komeni oso maiz hitz egitea gurasoekin. Hori dela eta, lau dei izatea gomendatzen digute.

Eta euren herrira itzultzean, urtean zehar adibidez, mantentzen duzue harremanik haiekin?

Hasiera batean, bere familiarekin eskutitz bidez komunikatzen ginen. Elkartea arduratzen da eskutitzak itzultzeaz. Baina berehala jarri zuten haiek ere whatsapp eta ordutik whatsapp bidez komunikatzen gara eta argazki eta bideoak bidaltzen dizkiogu elkarri.

Hala ere, Ukrainako haur bakoitzaren egoera oso ezberdina denez, kasu batzuetan komunikazioa ez da erraza izaten.

Behin probatu ondoren, zuek esperientzia errepikatzeko erabakia hartu zenuten. Jendea animatuko zenukete harrera familia izatera? Zergatik?

Nahi duen oro animatzen dugu harrera familia izatera. Gure etxean guztiontzat izan da oso aberasgarria. Anaia, neba edo seme bat irabazi dugu eta, berarekin batera, bere familia.

Beste zerbait nabarmendu nahiko zenuke, Mila?

Nahi duenak edozer galde diezadake gai honi buruz, gauza asko gelditu baitzaizkit kontatu gabe elkarrizketa honetan. Bestela, Chernobil Elkartearekin harremanetan jar zaitezke (670 419 078) eta beraiek edozein zalantza argituko dizuete.



Olatz Linazisoro (Chernobil Elkarte): "Ilusioa, denbora eta Ukrainako umeak etxeko beste bat balira bezala tratatzea eskatzen zaie familiei"

Haurrei bisitak egin Ukrainan, famuliekin egon, informazioa eman, kontuak eraman, umeen bidaiak antolatu... Hamaika zereginetan aritzen da Chernobil Elkarte. 1996tik ari da haurrak aldi baterako Euskal Herrira ekartzen -1986an istripu nuklearrean kaltetutako lekuetan bizi dira umeak- eta boluntarioak dira taldean aritzen diren guztiak. Elkarteko kide den Olatz Linazisorok azaldu dizkigu elkartearen eta harrera programaren ingurukoak.

1986an izan zen hondamendi nuklearra Txernobylen. Zein da egungo egoera?

Chernobil Elkarteak landa eremuko famuliekin lan egiten du. Eremu hartan dagoen egoera ez da ona; kutsadura dago, baina hala ere bertan pertsona asko bizi dira, ezin baitute beste edonora joan. Erradiazioaz gain, inguru hartan, pobrezia da gaur egungo ezaugarri nagusia.

Elkartean, kutsatutako eremuan bizi diren eta ekonomikoki baliabide gutxi dituzten famulietako neska-mutilei laguntzen saiatzen gara. Hori dela eta, urtero gabilza harrera famulien bila.

Zertan da bereziki lagungarria hango haurrentzat uda Euskal Herrian pasatzea?

Gurea osasun programa da. Umeak ez daude gaixorik, baina Ukrainatik etortzen

direnean ahul datozela esan genezake. Hemen, indartu egiten dira. Mota ezberdineko jakiak jateko aukera izaten dute gure artean dauden bitartean, eta kutsatu gabeak! Beraien osasunean onura handia egiten die hona etortzeak. Izan ere, haurrek kutsatutako eremutik irten beharra dute, euren immunologia sistema indartzeko. Osasunerako Mundu Erakundeak dio urtean 40 egun nahikoa direla beraien defentsak berreskuratzeko.

Maila psikologikoan ere, bestalde, onuragarria da uda hemen egitea; gurea ingurune "normalizatu" bat da eta, noski, umeengan eragin positiboa du horrek. Ikustek aitek ere zaintzen dituztela, lana egitea merezi duela, matxismorik gabe...

Iaz, adibidez, 192 haur etorri ziren udan euskal famuliekin egotera. Azken urteotan jaitsi egin da harrera famulien kopurua, ezta? Zergatik?

Neska-mutilen kopurua aldakorra da. Arrazoi ezberdinak izan daitezke, hau da, ez dago arrazoi bakarra. Etortzen den haur bakoitzari harrera familia bat bilatzen zaio, eta haien egoera aldatzen ez bada, haurra 14 urte bete arte etor daiteke. Haurra ez da famuliaz aldatzen.

Bestalde, elkarteak ez du haur kopuruan inongo mugarik jartzen, ahalik eta ume gehienei eman nahi baitie Euskal

Herrira etortzeko aukera. Horretarako harrera famuliak behar ditugu, noski! Ezin dugu umerik gonbidatu harrera famulirik ez badaukagu. Beraz, lortzen dugun harrera famulien araberakoa da etortzen diren haurren kopurua.

Zer eskatzen zaie familiei?

Ilusioa, denbora eta Ukrainako umeak etxeko beste bat balira bezala tratatzea eskatzen zaie familiei; ahal den heinean famulietako bizitza normaltasunez jarraitzea, bat-batean etxean Ukrainako ume bat dagoelako, bizitza ohiturak ez aldatzea. Familia bakoitzak bere etxera gonbidatzen duen umearen bidaiak ordaindu behar du.

Haurra etorri aurretik familia prestatu egin behar izaten da moduren batean?

Familia berri guztiek ikastaro edo tailer bat egin behar dute. Psikologo batzuek prestatu eta ematen dute, eta harrera familia izateko prestakuntza bat da. Oso aberasgarria da, eta derrigorrezkoa.

Bestetik, harrera familia berri bakoitzari familia laguntzaile bat dagokio; familia hau udaran sor daitezkeen arazo txikiak konpontzeko lagungarria da. Harrera egiten esperientzia handia duten famuliek dira, berriei laguntzeko prest daudenak.



7.929.641 euroko aurrekontua onartu du Debako Udalak

2019. urterako udal aurrekontua joan den martxoaren 6an onartu zen, ez ohiko plenoan, aldeko 8 botorekin (Debarren Ahotsako bost eta EAJ alderdiko hiru) eta EH Bilduren kontrako 4rekin.

2019rako udal aurrekontuak honako hauek dira: Debako Udalarari 7.929.641 euro esleitu zaizkio -iaztik %5,81 hazi da-; Itziarko Toki Entitate Txikiari (aurrerantzean TET) 911.664 euro; Deba Musikal Patronatuak, berriz, 576.483 euroko diru kopurua izango du; eta Arte Eskolako Patronatuak, azkenik, 48.961 euroko aurrekontua.

Udalaren egoera ekonomiko-finantzario ona kontuan hartuta, zerga zuzenak ez handitzeko erabakia hartu du udal gobernua. Gaur gaurkoz, Udalak zorpetze maila baxua du eta horrek inbertsio gaitasun handia eskaintzen du epe motz zein luzera begira. "Lau urte hauetan -azaldu dute udal agintariak-Ogasun eta Finantza departamentuak kanpoko auditoria jarri du martxan; auditoria horrek kontuen zehaztasuna eta kontrola, lege xedapenen betetzea eta

baliabideen erabileraren optimizazioa egiaztatu ditu. Gastuaren zehaztasun eta kontrol horren ondorioz, altxortegiaren erabilgarritasuna handitu egin da eta udalaren zorpetze maila jaitsi".

Aurrekontu hauek batera landu dituela nabarmendu du gobernu taldeak, erdietsi beharreko helburua beti garbi edukita. "Uste dugu aurrekontu hauek herritar guztien ongizatea bermatzeko eta zerbitzu guztiak hobetzeko tresna izango direla". Udal gobernuak kideek gogorarazi dute 2019rako hainbat inbertsio aurreikusten dituztela. Asmo edo proiektu horien artean azpimarratu dituzte, adibidez, hondartza eta erreka pasealekuaren birmoldaketa batetik eta transformadore zentrala bestetik, alde zaharreko Portu kalearen inguruan.

"TETaren aurrekontua %6,63 hazi da"

Bestalde, Itziarko Toki Entitate Txikiaren aurrekontua %6,63 igo dela argitu dute (911.664 eurora iritsiz). "Udaletxetik argi laga nahi da, Foru

Dekretuaren arabera, eta 4 urteko lege-gintzaldiaren ondoren, oraindik ere eskumenen transferentzia arautzen duen hitzarmena formalizatu gabe dagoela, eta horrek eragin zuzena duela herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuen eraginkortasun optimoan. Udal gobernua behin eta berriz azpimarratu du hitzarmen hori egitearen garrantzia, beste aldeak hutsal iritzi dion arren".

TETaren inbertsioei dagokienez, aurrekontuaren zati handi bat baserri bideak konpondu eta hobetzeko erabiliko dela argitu du Debako Udalak. Zera ere nabarmendu du: "Azken gertaeren harira egindako irakurketa okerren aurrean (TETaren aurrekontua jaitsi egin dela esanez, adibidez), Udalak azpimarratu eta bergogoratu egin nahi ditu lege-gintzaldi honetako azken urteetako aurrekontuak, argi ikus baitaiteke udal aurrekontua eta TETaren aurrekontua etengabe joan direla hazten. Horren erakusgarri, esango genuke, azken bi urteetan TETaren aurrekontu dotazioa %1 gehiago hazi dela Debarekin alderatuta".

ehbildu

EH Bildurentzat, aurrekontua da udal politika aurre-eramateko tresnarik garrantzitsuenak, bertan jasotzen delako udal kudeaketaren norabidea. 2019ko aurrekontuari dagokionez, gure bozka ezezkoa izan da, EAJ-Debarren Ahotsa udal gobernuaren kudeaketarekin ez dugulako bat egiten.

Alde batetik, **hondakinen bilketaren inguruan hartutako erabakiak ez dira egokiak izan**. Herritarrek erabakitako bilketarako sistema martxan dugun arren, agerikoa da kontainerretan birziklapena ez dela ondo egiten. Konpostaren inguruan ere, genuena hobetzeko lana hartu beharrean, Udalaren asmoa hau indargabetzea izan da hasieratik. Kontsumo arduratsuen nahiz kontzientziazioaren bidean ez da inolako pausorik eman.

Bestalde, **parte-hartzea ikurtzat hartuta etorri ziren arren, atzera egin dugu lau urte hauetan**. Herritarrei zabalduko informazioa, *Debaberrri* aldizkaria adibidez, gutxitu egin da. Udal barruan zinegotzian parte-hartzerako sortutako mahaiak desagertu dira. Pleno eta batzordeetan beharrezko dokumentazio eta eztabaidarik gabe aztertzen dira gaiak.

Azkenik, **udal gobernu honek ez du inbertsio esanguratsurik egin**, etorkizunerako Debarako estrategikoak izan daitezkeen proiektuak irudikatzen: kiosko gunearen eraldaketa, etxebizitza dotzionalak, arraun kirolerako gunea, trenbidearen egokitzapena, hotelaren etorkizuna, autokarabana gunea... Ez da ezer zehaztu legealdi honetan.



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA



Itur kalea, 9 • Tfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Iruleak kirol kluba sortu dute Debako emakume pilotariek

Harpidetza kanpaina ere abiatu dute, "sarea iruten, taldea handitzen eta aberasten" jarraitu ahal izateko

Hamaika lehia eta ekimen egin dituzte azken urteotan. Emakumezkoen pala taldea handitzen eta indartzen joan da azken boladan, eta beste urrats bat ematea erabaki dute orain, talde propioa sortuta: Iruleak Emakume Pilotariak.

Ez omen da erraza izan taldearen nortasuna islatzen duen izen bat aurkitzea. "Herriarekin zerikusia izan zezakeen zerbaiten bila aritu ginen eta Iruleak egokia iruditu zitzaigun, Debako kondairaren omenez". "Emakumezkoak biltzeko eta harremanak josteko gune bat sortu nahi dugu Iruleak Emakume Pilotariak taldearekin", nabarmendu dute.

Atzera begira jarrita, taldekideek azaldu dute lehen pausoak 2012an eman zituztela, Deban lehenengo emakumezkoen binakako pala txapelketa antolatuz. Harrezkero, urtero antolatu dute ekimen hori irailetik abendura bitartean eta, Debakoez gain, inguruko herrietako emakumeek ere parte hartu izan dute lehian. Maite Etxeberriaren omenezko txapelketa, txapelketa azkarrak, pala ikastaroak... ere egin dituzte gerora, baita bestelako kirol ekintza ezberdinetan parte hartu ere (Lilatoia, Emakume Pilotari jaialdia...).

Aurrera begirako helburuak ere ondo zehaztu dituzte: "Orain arte emakumezko kirolaren praktikarekin mugagarriak izan diren estereotipoak eta aurreiritziak alboratzea eta emakumea indartzea; herriko emakumezkoen artean kirola sustatzea, ekintza ezberdinak euren beharretara egokituz eta parte-hartzea handituz; eta datozen generazio berrientzat erreferente izatea, herrian gure presentzia bermatuz eta gazteak palara gerturatzerara gonbidatuz".

Orain arte egindakoa egiten jarraitu nahi dute taldekideek. Gomazko pilotarekin hasi, inguruan sortzen diren kirol ekintza ezberdinetan parte hartu, txapelketak eta ikastaroak antolatu, sare sozialetan eta hedabideetan euren presentzia bermatu,



herrian emakumezkoen kirol erreferente bat izaten jarraitu, beste kirol elkarte batzuekin harremanak sendotu...

Finean, "Debako Emakume Pilotari gisa egiten ari gara egiten jarraitzeko helburua" dute, eta horregatik sortu da, neurri handi batean, kirol kluba; "gaur egun, diru-laguntzak eta aseguruak egiteko identifikazio fiskaleko kode baten (IFK) beharra dago, eta horretarako elkarte propio bat sortu behar da".

Taldearen egoera formalizatzeko sortu duten klub berria otsailean aurkeztu zuten, Kultur Elkartearen. Taldearen izaera eta helburuak azaldu zituzten hitzorduan eta, bide batez, Iruleak Emakume Pilotarien parte izateko deia ere egin zuten.

Harpidetza kanpaina abiatu dute. "Elkarte bat osatzeak badi-tu bere gastuak: aseguruak, lokalaren alokairua, federazioan izen-ematea, materiala... Hori dela eta, bazkide izateko urteko kuota sinboliko bat eskatzen dugu, 10 eurokoa". Inprimaki bat bete behar dute interesatuek, eta iruleak@gmail.com helbidera bidali (edo Sasoikon utzi); bestela, Sonia Tomasekin edo Itziar Albizurekin harremanetan jarri daitezke. Ordainketa eskuz edo transferentzia bidez egiteko aukera dago.

Iñaki Beasainek zilarrezko domina lortu du Euskadiko atletismo txapelketan, 800 metroko lasterketan

Donostiako Elortza belodromoan jokatu zen otsailaren 23an pista estaliko gazte mailako Euskadiko Atletismo Txapelketa. Iñaki Beasain debarra 800 metroko lasterketan lehiatu zen, 20 urte azpikoen mailan, eta bigarren egin zuen lehian, 2:03.85 denborarekin. Andoni Orio debarra, bestalde, 15. postuan gelditu zen, 400 metroko proban.

Astebete lehenago Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Donostian. Beasainek irabazi zuen lehia, junior mailan, 800 metroko proban (2:02 denborarekin). Eta Elgoibarko Mintxeta atletismo taldeko kideek jakinarazi dutenez, Andoni Orio ere fin ibili zen hitzorduan; hirugarren egin zuen jubenil mailako 400 metroko proban.

Urrezko ezteiak beteko ditu aurten Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketak

Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketak denboraldi berezia izango du aurtengoa, lehiaketaren 50. edizioa ospatuko baitute. Hori dela eta, urteurrena ospatzeko, hainbat txapelketa berezi prestatu dituzte, zenbait udal eta saltokiren laguntzarekin. Hiru txapelketa izango dira jokoan: betiko formatuari jarraituko diona, hiru ostiral gauean erabakiko dena eta beste hiru jaurtialdi berri izango dituen. Nabarmenezkoa da, adibi-

dez, maiatzaren 18an Lasturko bolatokian jokatuko den botaldi berezia (17:00etan); bi txapelketetarako izango da puntuagarria.

Elgoibarren hasi (martxoaren 23an) eta amaituko da (ekainaren 1ean) Gipuzkoako txapelketa. Hurrengo saioak hauek dira: martxoaren 30ean Bergarako San Joxepen, apirilaren 6an Sorluzen (San Andres) eta apirilaren 13an Azkoitiko Floreagan.

“Arriolako eta Egiako bizilagunen %75ak Itziarko Auzo Udalaren parte izaten jarraitu nahi du”

“Auzotarren gehiengoaren borondatearen gainetik inolako aldaketarik ez egiteko” eskatu diote Debako Udalari, sinadura bilketa bidez

“Deba udalerriko biztanle izanik, baina nire bizitzako hainbat zerbitzu, ohitura eta harreman Itziarren errotuta ditudanez, Itziarko Auzo Udalaren parte izaten jarraitu nahi dut”. Adierazpen hori egin du Arriola eta Egiako auzoetako bizilagunen gehiengoak, Debako Udalari mezu argia helarazi nahian.

Joan den azaroan egindako osoko bilkuran, Debako Udalbatzak “Itziarko Toki Entitate Txikia aldatzea justifikatzen duen txostena” onartu zuen. Bestelako ondorio batzuen artean, Egiako eta Arriola auzoak Itziarko Auzo Udalaren antolaketatik kanpo lagatzea ekarriko luke aldaketa horrek. Eta, asmo horien aurrean, Arriolako eta Egiako bizilagunek sinadura bilketa batekin erantzun diote Debako Udalari. Ez daude ados aldaketa proposamenarekin. “18 urtetik gorako bizilagunen %75, hau da, 4tik 3, Itziarko Auzo Udalaren parte izatearen alde agertu da. Horrek, gainera, ez du esan nahi gainerako bizilagunek horrela pentsatzen ez dutenik, arrazoi desberdinengatik sinatzeko arazoak izan direla baizik”. Guztira 48 bizilagunek sinatu dute inprimakia.

Martxoaren 7an agerraldia egin zuten sinatzaileetako batzuek Itziarren, Arriola eta Egiako auzotarren izenean azalpenak emateko prentsaurrekoan.

Auzotarrek azaldu dute Itziarren dituztela hainbat zerbitzu, aspalditik. Bertan daukate medikua, bertan ematen dute botoa hauteskundeetan, bertara eramaten dituzte eskolara ume txikiak, eta bertakoa da haien kode postala, bestelako identifikazio askoren artean. Era berean, zera nabarmendu zuten agerraldian: “Harreman eta ohituren parte handi bat Itziarren dugu, eguneroko beste hainbat lotura Debako hirigunean ditugun bezalaxe.



Egiako eta Arriolako auzotarrok itziartartzat dugu gure burua, Debako udalerraren parte izanik”.

Argi utzi dute auzi honetan ez dagoela “behin eta berriro hauspotzen den lurralde zatiketa” konturik. “Debako Udalak dio etorkizunerako Debako hirigunearen garapen urbanistikoa bermatzea omen dela halako aldaketaren arrazoia. Hori ez da horrela. Hirigintza eskuduntzarik ez du Itziarko Auzo Udalak, Debako Udalaren esku dago, lehen bezalaxe, 2015eko Itziarko Toki Entitate Txikiaren Arau Foralak argi jasotzen duenez. Beraz, Itziarko Auzo Udalak ez dakar muga aldaketarik. Zerbitzu eta eskuduntza batzuk administratzen ditu, beste batzuk Debako Udalaren edo erakunde nagusien gain dauden bezalaxe”.

Prentsaurrekoan azaldu zutenaren arabera, Arriola eta Egiako auzotarren sinadura hauek alegazio gisa aurkeztu dira jadanik Debako Udalean. “Auzotarren ohitura eta gehiengoaren borondatea aintzat hartu gabe” horrelako aldaketarik egitea ez dela zilegi adierazi nahi dute sinaduren bitartez. Gaineratu dute horrelako erabakiak ezin direla hartu “auzotarren iritzia gutxietsiz, eta auzotarrekin harremanetan jarri gabe”.

Kardantxulo Eguna egingo da Itziarren, apirilaren 6an

Andutz Biltokiko itziartar gazteok hamalau urte pasa daramatzagu herriko mozorro eguna antolatzen. Lehen urteetan “Gazte Eguna” izenarekin aritu ginen, bertako eta inguruko gazteei zuzendutako eguna, festa giroan eta umore onez, etxeko armairuak astindu eta mozorro ezberdinekin kalera irteteko asmoz. Azken urteotan, berriz, itziartarrentzako berezia den izena jarri diogu: “Kardantxulo Eguna”. Herriko eta inguruko haur, gazte zein helduei zabaldu zaie deialdia.

Herritarrok herritarrentzako antolatutako eguna da, goizean hasi eta musika, bertso, elkarretaratze eta dantzaz osatutako eguna, jai giroan, mozorroak soinean ditugularik. Azken urteetan mozorroen gai ezberdinak izan ditugu: musika izarrak,

zirkua, itsasoa, superheroiak, etorkizuna... Aurtengoan, aldiz, **telebista** izango da gai nagusia; telesailak, iragarkiak, pelikulak, programak, marrazki bizidunak barne hartuko dituen gaia.

Eguneko egitarauan, Itziarko haur eta helduen bertso eskolak izango ditugu, baita bertako kantujira taldea ere. Altsasuko gazteen aldeko elkarretaratzea ere egingo dugu, gizartearen pil-pilean dagoen egoera larria salatzeko ere erabiliko dugu eguna, beraz. Azkenik, festari amaiera emateko Lekeitioko McOnak eta Eibar-Elgoibarko Mugi Panderoa taldeak izango ditugu herriko plazan.

Apirilaren 6an mozorroak jantzi eta Itziarren elkartuko gara!

Andutz Biltokia

EGITARAUA

- 11:00. Kardantxuloak abiatzeko prest!, plazan.
- 12:30. Kantu-triki-poteoa, kalebarrenetik plazara.
- 13:30. Altsasuko gazteen aldeko elkarretaratzea, plazan. Jarraian, Umeen Bertso Eskola.
- 14:30. Herri bazkaria. Ondoren, Itziarko Bertso Eskola.
- 23:00: Kontzertuak plazan: -McOnak -Mugi Panderoa

Deba ^{æk} 21. korrika **Klika** AGENDA

KORRIKAren 21. edizioa gure herri erdigunetik pasako ez den arren, Debako herritarroi dagokigu apirilaren 12an (ostirala) goizeko 6:20an Kalbariotik behera Mendarora bidean dauden kilometroak osatzeko ardura.

Debako eragileei dagozkien kilometro hauetara korrikalariak gerturatzeko kotxeak antolatuko dira. Korrikalari moduan edo kotxea eramateko bolondres moduan izena eman nahi baduzu, martxoaren 30ean eta apirilaren 6an Foruen Plazako arkupetan jarriko den KORRIKA postutik pasa edo email bat bidali deba@korrika.eus helbide elektronikora.

KORRIKA egunaz gainera, aurreko egunetan hamaika ekimen kultural antolatu dira herria KORRIKA giroan murgiltzeko asmoz. Hona hemen egitaraua:

MARTXOAK 30 larunbata

10:00 / PALA TXAPELKETA MISTOA Aldats Pilotalekuan
IZENA EMATEKO: 688 663 744 (Amaia) / 685 755 074 (Ainitze)

12:00 / KORRIKAko material salmenta postua Plazako Arkupetan

APIRILAK 5 ostirala

20:00 / Debako Musika Bandaren KALEJIRA

22:00 / KONTZERTU AKUSTIKOA: Sara eta Julia Gaztetxean

APIRILAK 6 larunbata

12:00 / KORRIKAko material salmenta postua Plazako Arkupetan

14:00 / DEBA KLIKA! ARGAZKI HERRIKOIA Plaza Zaharrean

19:00 / Senzala taldearen CAPOEIRA ERAKUSTALDIA Foruen Plazan

19:30 / BERTSO-TRIKI-POTEOA herriko kaleetan zehar
Debako trikitalariak | Manex Astigarraga - Antton Aizpurua bertsolariak

APIRILAK 7 igandea

UMEENTZAKO IPUIN KONTAKETAK Agirre jauregiko ispiluen gelan

17:00 / 3-7 urte bitarteko umeentzat | **18:00 / 7-12** urte bitarteko umeentzat

APIRILAK 11 osteguna

15:00 / KORRIKA TXIKIA Ikastetxetik Plazara

16:00 / UMEENTZAKO TXOKOLATADA

Foruen Plazan, Zubi Guraso Elkartearen eskutik

19:00 / Kalez kale txistulari taldearen KALEJIRA

19:30 / Ke toke el de alau TXARANGA herriko kaleetan zehar

20:00 / KALEAN KANTUZ herriko kaleetan zehar

APIRILAK 12 ostirala

06:20 / BADATOR KORRIKA! Kalbariotik behera Mendarora bidean



Herritarrek bidalitako argazkiekin osatu dugu bilduma. ESKERRIK ASKO DENOI!!!



MARTXOAK 27, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa Kluba**, Udal Liburutegian (Asier Serranok gidatua). *"Las palabras andantes"* (Eduardo Galeano) liburua izango dute hizpide.

MARTXOAK 29, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.

MARTXOAK 30, LARUNBATA

-10:30. **Tokiko Hazien tailerra** (Debanatura).
-17:00. **Anes Arrinda haur krosa**, Zumardian.

MARTXOAK 31, IGANDEA

-16:30. **Haurrentzako zinea**, Kultur Elkartean.

APIRILAK 2, ASTEARTEA

-9:00. Cristina Garcia organistak Musikeneko ikasleei eskainitako **master class**-a, Santa Maria elizan (*Organoak plazara*).

APIRILAK 3, ASTEAZKENA

-11:15. Xabier Lizaso pianistak **saio pedagogikoa** eskainiko die Luzaroko 4. mailako ikasleei, Santa Maria elizan (*Organoak plazara*).
-18:30. **Hitzaldia**: *"La Ciudad de los Reyes"*, Santa Maria elizan. Hizlaria: Cristina Garcia.
-20:00. **Organo kontzertua**, Cristina Garcia-aren eskutik, Santa Maria elizan (*Organoak plazara*).

APIRILAK 4, OSTEGUNA

-18:00. **Hitzaldia**: "Hezurretako mina eta artrosia" (Osakidetza), Arbil jubilatuen elkartean.

APIRILAK 5, OSTIRALA

-19:00. Garizumako **topaketa-hitzaldia**: *"Elkarte zentzu handiagoa duen parrokia"*, Ana Berrizbeitiarekin.

APIRILAK 6, LARUNBATA

-**Kardantxulo Eguna** Itzarren, Andutz Biltokiak antolatuta (egun osoko egitaraua). Ikus 14. orria.
-**Dantzari Txiki Eguna**, Gure Kai dantza taldearen ekimenez.
-10:15. **XLVI. Amaiak Bat Txirindularitza Saria** (junior maila).
-11:30. Geoparkeko **irteera gidatua: Flysch Beltza**. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

APIRILAK 7, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregian. 17:00etan: HHkoentzat/ 18:00etan: LHkoentzat. Korrikaren egitarauaren baitan antolatutako hitzordua.

APIRILAK 10, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa Kluba**, Udal Liburutegian (Asier Serranok gidatua). *"Baina ez lukete han egon behar"* (Asier Osinalde) liburua izango dute hizpide.

APIRILAK 11, OSTEGUNA

-18:00. **Elkarzinema**, Arbil jubilatuen elkartean.

APIRILAK 12, OSTIRALA

-06:20. **BADATOR KORRIKA!** Kalbariotik behera Mendarora bidean. Ikus egitaraua 15. orrialdean.
-19:00. Garizumako **topaketa-hitzaldia**: *"Elkarte zentzu handiagoa duen parrokia"*, Ana Berrizbeitiarekin.

APIRILAREN 14, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera**, Burdin Kurutz eta Luzarok antolatuta: Ondarru-Mutriku-Deba (kanboarrek).
-10:45. **Erramu Iganeko Familien Eukaristia**. Haurren prozesioa eta erramuen bedeinkapena.
-12:00. Geoparkeko **bisita gidatua: "Gotikoaren altorra Deban"**. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

Plazatik Gaztetxera

-Abian dago XVII. Plazatik Gaztetxera bertso txapelketa. Hurrengo saioak: martxoaren 29an (ostirala), Mutrikuko gaztetxean; martxoaren 30ean (larunbata), Zestoan. Ordua: 22:00.

Merkatu solidarioa

-Apirilaren 6an (larunbata) eta 7an (igandea), Salvamento Maritimo Humanitarioren aldeko merkatu solidarioa egingo da udaletxeko arkupeetan. 30 milia saltzea da helburua: milia bat itsasbide (1.852 metro) 34 euroan eskura daiteke. Apirilaren 6an egun osoz egongo da zabalik merkatua, eta hilaren 7an, berriz, goizez.

Lehiaketak

-**Ziriako Andonegi mikroipuin lehiaketa**: Mutrikuko Udalak antolatu duen lehiaketa edonork parte hartu dezake. Gai librearen duten euskaraz idatzitako 100 hitzeko nahi beste idazlan bidali daitezke, apirilaren 8a baino lehen. Informazioa: www.mutriku.eus.

-XI. Elkar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketa

Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko helburuarekin, hiru modalitate antolatu dira, partaideen adinaren arabera: ipuina ilustratu, ilustrazioa ipuin bilakatu eta komikia edo bineta sortu. Lanak apirilaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira. Informazioa: www.elkar.eus.

KZguneko ikastaroak

-KZgunek goizeko ordutegia izango du martxoan eta arratsaldez arituko da apirilean. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzgunen.eus.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **martxoak 29, 30, 31, apirilak 8, 9, 10, 11.**

Burgoa Zuazo: **martxoak 25, 26, 27, 28, apirilak 12, 13, 14.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: martxoak 30 / apirilak 6

BURGOA ZUAZO: apirilak 13 eta 20

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

RPS: 183/12

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARIE CASTRO IRIBAREN

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasu
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

✉ Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

🌐 sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com



Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telef.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

k
kutxabank

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

API
Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

LIZ.-ZK.: 3

TaxiAlain Deba

WiFi

www.alain.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Zuhatzta Euskara Elkartearen urteko batzar orokorra

Eguna: 2019ko apirilak 5, ostirala

Ordua: 18:30 (lehen deialdian) / 19:00 (bigarren deialdian)

Tokia: Zuhatzta Euskara Elkartearen bulegoan

Gai ordena:

- 2018ko ekimenen balorazioa eta balantze ekonomikoa
- 2019ko aurrekontua eta egitasmoak
- Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena

ETORRI ELKARTEAN EGITEN DUGUNA EZAGUTZERAI

Kontaktuak:

koordinatzailea@zuhatzta.com

edo 943 19 13 83 / 632 04 33 22

21. korrika

BADATOR



APIRILAK 12, Ostirala (goizeko 6:20ak aldera)

DEBAko eragileek hartuko dute lekukoa (Kalbariotik behera Mendarora bidean)



Debako eragileen KMak herri erdigunetik urrun daudenez, bertara gerturatzeko kotxeak antolatuko dira.

Apuntatzeko zerrenda: MARTXOAK 30 eta APIRILAK 6, 12:00etatik aurrera Plazako arkupeetan jarriko den postuan edo email bidez:

deba@korrika.eus